

IL AZALPEN PROBA • <i>Sisifo maite minez</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—“Maitemindurik egotea odolustea bezala da, inondik sortzen ez den odoljario suabea; eta isuriarekin batera barnea kanpora ateratzen ari dela sentitzen du norberak. Estasitik hurbilen egon daitekeena da” –esan zuen Anek. Eta, aitortu behar dut, bere oinaze gogor hark izutu egin ninduen.

Maitasuna suabea eta bortitza izan daitekeela esan dio Estebanek Karmeleri, eta esan dio gero, profesional gisa, subjektuak ez duela maitasunezko objektua maite, maitasuna bera baizik. Maiteminduak amodioa maite du lehenengo, eta gero objektu maitatua. Begietara begiratzen dion bitartean esan dio amodio oro gabezia dela Platonen arabera, eta berak uste duela, gabezia eta bakardadea batzen direnean, gizakia indijentea dela. Indijentzia horretatik sortzen da maitasuna. Eta Karmelek ez daki Estebanen begiratzeko modu hori teoria indartzeko erabiltzen duen ala beste mezu bat ari zaion bidaltzen kode ez-mintzatuan.

IL AZALPEN PROBA • <i>Sisifo maite minez</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

San Juanen eman zituzten egunetan ez ziren mintzatu ezertaz Ane eta Mikel. Oporrak behar zituzten, Managua atzean utzi eta egunerokotasunarekin lotzen zituzten gauza guztiak bistaz galdu. Egonean egon, zerbait irakurri eta larrutan egin, zoro, pasioaz, tropikoaren izerdiari maitasunaren izerdia gehituz, amultsuki, lizunkeriaz, izarak blai utzi arte.

Ia ez zuten hitzik egiten. Entzumenaren kaltean, ukimena landu zuten. Gainera, hitz egiteak erabakiak hartzea zekarren, eta erabakirik ez hartzeko ziren joanak haraino. Edozein soluziobide mingarri izango zitzaizela susmatzen zuten. Zer egin zezaketen zelo irrazionalen aurrean? Anek ezin zuen Mikel etengabe kontrolpean eduki, baina, bestalde, berarekin egoten ez zenean, gaixotu egiten zen Mikel norekin egon zitekeen pentsatze soilaz. Oporraldi amaigabea ere pentsaezina zen. Bizimodua modu batera edo bestera antolatu beharko zuten. Orduan, zer egin? Banandu? Segitu? Eta segitzekotan, noiz arte jasango zuen Mikelek zeloen presio hura?

Biak bakarrik geundenean, beste inoren presentziarik gabe, ez zen arazorik sortzen. Mundua ideala zen, perfektua. Perfekzio osoa lortzeko falta zitzaion bakarra betierekotasuna zen, eternitatea.

IL AZALPEN PROBA • <i>Sisifo maite minez</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Hala ere, zuk behin bizimodu tradizionala aukeratu zenuen, ezkondu eta bikote tradizionala aukeratu zenuen, ordura arteko harreman gorabeheratsua lagata, ez al da horrela? Ez al zenuen Jon hartu eta Txute utzi?

—Nahiago nuke ez mintzatu horretaz.

Erabatekoa izan da Aneren erantzuna, gaiari ekiteko betarik eman gabe. Ez du berriz azalera ekarri nahi. Ahaztu egin nahi du. Ez du pentsatu nahi Jon senartzat aukeratzeko zer-nolako motibazioa eduki zuen, eta, batez ere, zergatik aukeratu zuen hura Txuterekin ibiltzeari utzirik.

Garai pasiotsu eta gorabeheratsu hartan Txutek zentzumena itsutu egiten zion. Hura ikusteagatik edozer egiteko prest egoten zen. Aire bezainbeste behar zuen. Txuteren besoek inguratzen zuten bere mundu osoa, haren irribarreak argitzen zituen Aneren egunak, eta haren haserrealdiak deuseztatzen zuen beraren unibertsoa, iluntasunik ilunenean murgilaraziz.

IL AZALPEN PROBA • <i>Sisifo maite minez</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Kontatu nionean, odol proba egin behar nuela esan zidan Mikelek, ADNaren proba alegia, eta behin betiko argitu aita nire aita biologikoa den ala ez. Baina nik ez dut probarik behar. Norberak badakizki gauza horiek, kimikaren laguntzarik gabe.

Ziur da Esteban, inoiz probarik eginez gero, eta emaitzen arabera Juanen alaba dela frogatuz gero, Anek ez lukeela emaitza onartuko. Erratu direla esango luke, akatsen bat egon dela prozesuan. Arrunta da erreakzioa paranoikoen artean. Erreal ez den errealitatea bizi dute, eta ez dute sinesten berenaz aparteko beste errealiterik egon daitekeenik.

Bestela, nola azaldu amak Amaia eta biokin zuen jokamolde ezberdina?

Estebani puntu hau argitzea interesatzen zaio. Baliteke Aneren ustea erreakzio paranoikoa izatea, baina baliteke, aitzitik, egiazko izatea, eta ez soilik haren obsesioa.